



Leitzako dorreak

*Nafarroako istorio bat
Erdi Aroko zurgin batek kontatua*

Iñaki Sagredo

Itzulpena: Julio Soto Ezkurdia - Edizioa: Fernando Rey

Ganbara, 39

978-84-9172-375-2

2024. urtea - 96 or. - 21x26 cm

20,00 €

2017az geroztik Leitzako Udalean bildu eta aztertutako dokumentazioak informazio ugari eman zuen Erdi Aroan herrian izan ziren bi dorreei buruz. Bata zurezkoa zen eta erreka aldean zegoen; bestea, geroagokoa, harrizkoa zen, eta herrian berean eraiki zuten. Datu guztiak genituen, baina nola uztartu liburu batean dokumentuen edukia eta irakurleari Erdi Aroko bizimoduari buruzko jakin-mina piztu nahia?

Gakoa XIV. mendeko narratzaile bat orainaldira ekartzea izan da: Antso Beorietakoa, erregearen obretako maisua, dorreko lanetan buru-belarri aritutakoa eta herri hauetako berezitasunak ongi ezagutu zituen, ongi dokumentatua baitago askotan izan zela bazter hauetan.

Dokumentazioen edukia zen Erdi Aroko bizimodua azaltzeko kontakizunaren haria, hura baitzen osagai nagusia Erdi Aroa azaltzeko, baita hartan bizirauteko bizimoduaren gakoak ere: natura, basoa, harreman sozialak...

Nafarroako historia ikuspuntu horretatik kontatzen duen lehenbiziko lana da: Erdi Aroko maisu baten bizitza da muina, eta ematen diren datuek dokumentazioa dute oinarri. Bi gauza baizik ez ziren falta: protagonistak bere bizitzaren berri ematea eta egileak kontakizuna ehuntzea.

(Koloretako irudi ugarirekin)



Iñaki Sagredo
(Irun, 1967)

1997az geroztik, Nafarroako Erresumaren lurralde historiko guztietako gazteluak ditu ikergai. Lan horren fruitu du argitaratua *Navarra. Castillos que defendieron el Reino* izeneko liburua. **I. liburukia:** *De Laguardia a Foix, del Moncayo a Baja Navarra* (2006); **II. liburukia:** *Los castillos de Sancho III el Mayor en Alto Aragón, Sobrarbe y Ribagorza* (2007); **III. liburukia:** *La Navarra occidental, la frontera del mar: Álava, Bizkaia, el Duranguesado, Gipuzkoa* (2007); **IV. liburukia:** *El Reino de Pamplona (810-1173). La Rioja, La Rioja, La Bureba, Cantabria* (2009); **V. liburukia:** *Nuestra historia, nuestras gentes* (2015).

Bestetik, liburu hauek idatzi ditu: *Castillo de Irulegi* (Arangurengo Kontzejua, 2006); *El castillo de Amaiur a través de la historia de Navarra* (Pamiela, 2008); *Vascones. Poblamiento defensivo en el Pirineo* (Pamiela, 2010); *Cuando éramos navarros. Defensa y pérdidas del territorio (778-1620)* (Pamiela, 2012); *La batalla de Amaiur. La historia perdida de Navarra* (Pamiela, 2022); *De los vascones al Reino* (Pamiela, 2023).

